



JARDUNBIDE EGOKIAK

Espainiako federazioentzako, ligentzako
eta kirolarientzako araudia eta printzipioak



LALIGA



Consejo
Superior de
Deportes

HELBURUA / HARTZAILEAK

Kirolean osotasuna eta praktika onak ezinbesteko elementutzat hartu behar dira zintzoa eta leiala den kirolaria definitzeko, lehiaketako jarduera fisiko ororen ezinbesteko eta oinarrizko printzipioekiko. Azpijokoak, emaitzak adosteak edo kirol-ustelke-riak berak, jatorria edozein dela ere, joko garbitzat jotzen den horretatik pertsona urrundu besterik ez dute egiten, eta horregatik, joko-araueetatik kanpo geratzen dira. Gida honen helburua da tresna gisa balio izatea, hemen bildutako arau eta gomendioei jarraituz, beren kirol-karrera eta karrera pertsonala osotasun eta ohorearen barruan garatu nahi dituzten kirolari guztientzat. Halaber, arau eta gomendio horiek guztiak betetzen badira, LALIGAK txapelketari eman nahi dion babesari indartu besterik ez da egingo, eta, beraz, lehiaketan parte hartzen duten guztiei babesari emango die.

Futbolariak, entrenatzaileak eta, oro har, futbolaren alde lan egiten duten pertsona guztiak babestea, hori baita LALIGAREN helburu nagusietako bat, bere alderdi guztietan lehiaketa zintzoa lortzeko.

/ JOLAS/AISIALDIKO APUSTUEI BURUZKO ARAUAK

Espainiako jokoari buruzko egungo araudiaren arabera, ezin duzu zure taldearekin zerikusirik duen apusturik egin, ezta zure lehiaketan parte hartzen duten taldeekin zerikusirik duen apusturik ere, nahiz eta zure aurka ez jokatu. Ez jokatu, ez makur jokatu! Espainian jokoaren jarduera araututa dago. Jokoari buruzko Legeak (maiatzaren 27ko 13/2011) apustuak egiteko irizpideak eta baldintzak ezartzen ditu, bai eta haien ezaugarriak eta mugapenak ere. Lege horren 6. artikuluan, kirolarientzako berariazko arau-xedapen bat dago. Xedapen horretan, apustuaren xede den kirol-ekitaldi edo -jardueran kirolariek, entrenatzaileek, zuzendariek edo zuzeneko beste parte-hartzaile batzuek apustuak egiteko debekua ezartzen da.

Hau da, kirolari batek ezin du inolako apusturik egin bere partidetan, ezta bere lehiaketakoak diren partidetan ere.

Apustuak egiteagatik zehapen administratiiboak ehun mila eurokoak izan daitezke. Futbolari dagokionez, Espainiako Futboleko Errege Federazioaren diziplinako kirol-araudiak partida horrekin zuzeneko edo zeharkako lotura duten apustuak egitea debekatzen du. Arau-hauste horiek oso larritzat joko direlarik, zehapenak kirol-lizentzia behin betiko galtzea ekar dezakete. Gogoratu, jokoarekin ez da makur jokatzeko.



/ AURREZ ADOSTEARI, AZPIJOKOTAN ARITZEARI EDO PARTIDEN ELEMENTUEN ALDAKETARI BURUZKO ARAUAK

Gaur egun, hainbat formula daude partida bat manipulatu den jakiteko, besteak beste, kuotak modu irregularrean aldatu badira. Horren ondorioz, salaketak egin daitezke kirol-arloko organo eskudunen aurrean, edo zuzenean erakunde penaletan. Ez makur jokatu. Partida baten emaitza edo haren edozein elementu edo xehetasun alde aurretik adostea kirolaren oinarrizko printzipio baten kontra doa: emaitzaren ziurgabetasuna jokoaren edozein fasetan. Arau hori hausten denean, lehiaketa garbi eta zintzo baten oinarri den sistema osoa aldatu egingo da. Partida batean azpikotan aritzea edo haren emaitza adostea, baita elementuren bat adostea ere, DELITUA da. 2015etik Kode Penalak partikularren arteko ustelkeria-delituak jasotzen du (286 bis artikulua), eta 4 urte arteko espetxe-zigorak ezartzen ditu azpijokotan aritzen direnentzat, edo partida baten edo haren elementuren baten emaitza adosten edo aldatzen saiatzen direnentzat. Kirol-lehiaketa batean aurkariari edozein mota-tako abantaila eskaintzea, hitzmatea edo ematea, delitua da. Ondorio penal horiez gain, baliteke zure karreran kirol-ondorioak izatea, edo, zuzenean, zure karrera amaitzea. Diziplina arloko kirol arautegiek 5 urte arteko gaitasungabetzeak jasotzen dituzte arau-hausleentzat, eta horrek zure kirol karrerari amaiera eman diezaioke. LALIGA gogor ari da lanean jokabide horien kontrolean, prebentzioan, ikerketan eta salaketan, eta, horrekin batera, apustuetan iruzurra atzemateko aurrerapen teknologikoak ere oso tresna baliotsuak dira gaitz horren aurkako borrokan. LALIGAK azpijokoak hautemateko sistema propioa du, TYCHE izenekoak. Sistema hori, osotasun-ofizialen lanarekin batera, munduko edozein lekutatik gure lehiaketetan egindako apustuak monitorizatu, aztertu eta arakatzeko aukera ematen digu.

Orobat, barneko informazioa erabiltzea, pribilegiatua edo konfidentziala, erabat debekatuta dago baimendutakoez bestelako helburuetarako erabiltzen bada. Barne-informazio hori da kirolariek klub edo talde bateko kide izateagatik dutena, baldin eta, horri esker, apusturen bat egitean hirugarrenen aurrean abantailaren bat lortzeko aukera ematen badie. Barruko informazio konfidentziala baduzu, ez erabili apustuak egiteko eta ez eman hirugarren bati; informazio hori behar ez bezala erabiltzen baduzu, arazoak izan ditzakezu.



Gure analistek mugimendu susmagarriak hauteman ditzakete, kategoria edozein dela ere, eta ustezko delituak izateagatik salatu agintari eskudunen aurrean. Ez arriskatu eta saihestu polizia-ikerketak batean nahasita egotea; espetxe-ondorio penalak eta bizitza osorako kirol-lizentzia galtzea ekar ditzake.



/ IRABAZTEKO PRIMEI EDO KIROLAZ KANPOKO PIZGARRIEI BURUZKO ARAUAK

Irabazteko primak, hirugarrenentzako primak ere deiturikoak, lehiaketa aldatzea da, eta lehiaketaren osotasunaren eta garbitasunaren aurka doaz. Galtzeko primak baino larriagoak ematen duten arren, eta haien etika eta legezkotasuna aldeztu duten tesien aurka, hirugarrenentzako primak guztiz debekatuta daude, eta, beraz, kirol-erakundeek eta erakunde judizialek ikertu eta jazartzen dituzte. Izan ere, 2020ko apirileko epaia, Nafarroako Probintzia Auzitegiko "Osasuna kasua" deituri-koan, kirol-ustelkeriaren delitua kondenatzen duen Espainiako lehena da. Hau da, badago epai bat irabazteko primak gure herrialdean delitu direla ezartzen duena, eta horrek esan nahi du kirol-ustelkeriaren barruan ere sartzen direla, Kode Penaleko 286 bis 4 artikuluan hain zuzen ere; 4 urte arteko espetxe zigorra du, eta onura edo abantaila bider hiru artekoa izan daiteke isun-zigorra. Beraz, irabazteko prima onartzea ere azpijokoa da.

Halaber, Espainiako Futboleko Errege Federazioaren Diziiplina Kodearen 82. artikulua arau-hauste larritzat jotzen du hirugarren bati konpentsazioa segurtatu, eskaini, eman edo jasotzea, ordaintzaileari onura ekarriko diezaiokeen emaitza positiboa lortzeko pizgarri gisa.

FIFAk adierazten du partida edo lehiaketa batean, horren emaitzan edo beste edozein alderditan zuzenean edo zeharka eragina duten edo horiek manipulatu dituzten jarduerak, ekintza edo omisio baten ondorioz, zigortu egingo direla, futbolarekin zerikusia duten jarduerak egiteko gutxienez bost urteko debekuarekin, bai eta gutxienez 100.000 CHFko isunarekin ere. Kasu larrietan, debeku horren indarraldia luzeagoa edo biziartekoa izanen da.

/ SARE SOZIALEN ERABILERA

Kontuan hartu sare sozialetan egiten dituzun adierazpenek eragin eta irismen handia dutela. Zalantzarik gabe, zure jarraitzaileekin harremanetan egoteko oinarrizko tresna dira, baina sare horiek gaizki erabiliz gero, arazoak izan ditzakezu; beraz, behar bezala erabili. Mundu globalizatu honetan, non milioika pertsonak gaur egun sare sozialak erabiltzen dituzten, kirolarien zuhurtzia eta moderazioa ezinbestekoa da nahi ez dituzten gatazkak saihesteko. Kasu askotan, kirolariek arazoak izaten dituzte sare sozialak oker erabiltzeagatik; izan ere, horrek kirolarien aurkako salaketak ekar ditzake. Pertsona bakoitza bere sareetan argitaratzen duenaren erantzule izango da, bai bere mezua argitaratzean, bai beste pertsona batek argitaratutako edozein iruzkin edo irudi birbidaltzean. Saihestu bereizkeriazko hizkera darabilen edo indarkeria eragin dezakeen edozein iruzkin, bai eta eduki politiko, erlijioso edo arbitroen edo beste lankide edo entrenatzaile batzuen lana epaitzen duena ere.

**ERABILI BURUA,
BEHAR BEZALA ERABILI SARE
SOZIALAK.**



/ DISKRIMINAZIOA - ARRAZAKERIA

LALIGAk urteak daramatza arau honen inguruan lan egiten: Tolerantziarik ez edozein motatako diskriminaziori dagokionez, dela arraza, nazionalitate, erlijio, hizkuntz, sexualitate edo ezgaitasunagatik. Kirolean nagusi diren berdintasun-balioen kontrako portaera oro kirol-erakunde edo erakunde juridiko eskudunen aurrean salatuko da, eta, kirolariaren etorkizuna arriskuan jar dezake. Horri dagokionez, kirolariekin zerikusia duen kirolari eta jende guztia gonbidatuta daude bereizkeria sustatzen duten jokaerak salatzea, dela hitzezkoa, dela fisikoa, dela sare soziale-tako iruzkinak, horiekin amaitzeko eta egileek erantzukizunak bere gain hartzeko. [integridad@LALIGA.es](mailto:integridad@laliga.es) salaketa-kanalaren bidez nahi dituzun iruzkinak/salaketak bidal diezazkigukezu, haien konfidentzialtasuna bermatuz. LALIGAk kirolaren gizarte-balioa sustatzen du, denak kirolaren babesean egotea eta kirolera sarbidea izateko, kirola egiteko eta horretaz gozatzeko berdintasuna.

En el canal de denuncia integridad@laliga.es podrás hacernos llegar los comentarios/denuncias que estimes convenientes garantizando la confidencialidad de los mismos. LALIGA fomenta el valor social del deporte, la inclusión de todos en el mismo y la igualdad en su acceso, práctica y disfrute.

KIROLEAN EZ DIRA ONARTUKO JOKABIDE INTOLERANTE EDO DISKRIMINATZAILERIK, DISKRIMINAZIO EDO INTOLERANTZIA KASURIK JASATEN BADUZU,

SALATU.



/ SALAKETA-KANALA

LALIGAk zure eskura jartzen du salaketa-kanal berri bat, Canal Integridad izenekoa, LALIGA-ren web orrian eskuragarri dagoena: www.laliga.com/transparencia/guias-manuales. Kanal horren bidez, LALIGAKo Osotasun eta Segurtasun Zuzendaritzako profesionalekin harremanetan jar zaitezke, eta emaitzen adostasunaren, azpijokoen, apustuen edo bestelako delitu-kausen inguruko informazio garrantzitsu guztien berri eman dezakezu. LALIGAk informazioaren erabateko konfidentzialtasuna bermatzen dizu, baita zure iruzkin edo salaketak azkar eta eraginkortasunez erantzun direla ere. Ez zalantzarik izan, informazio garrantzitsuren bat zuzenean ezagutzen baduzu edo zerbait entzun baduzu, kontatu. Saihestu, halaber, zure taldeko kideek egindako delituengatik ikerketetan nahasita egotea.

EZ IZAN GAIZKIDE, EZ ISILDU.

SALATU.

integridad@laliga.es





LALIGA

GURE FUTBOLAREN INDARRA